

|   | <u>MARX</u>   | <u>DURKHEIM</u>  | <u>WEBER</u>  |
|---|---|--|---|
| <b>Nola ulertzen du gizartea?</b>                                   | <p>Uste du gizartea antolatzen dela gizabanakoak elkarren artean erlazionatzeko beharra dutelako, bizirauteko zerbitzuak ekoitzi eta beharizanak (basikoak eta materialak) asebetetzeko helburuarekin.</p> <p>Gizartearen jatorria ekoiztean dago.</p>  | <p>Gizartea balore kolektiboez osatutako errealitate sozial bat izan behar du, non, orden soziala mantentzea lortuko den.</p> <p>Ekintza sozialak gauza bezala kontsideratu behar direla dio.</p> <p>Erreforma baten bidez gizarteko arazoak konpon zitezkeela zioen. Erreforma honetan hauek ziren ezaugarri nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Erljioa ordezkatzeko duen moral kolektibo bat garatzen du.</li> <li>-Industri garaian sortutako lan dimentsio berrien garapenerako beharrezkoak diren irakaspenak bereziki lantzea.</li> </ul> | <p>Gizartea ez du era abstraktu batean ikusten. Hau da, gizartea talde sozial bakoitzaren (mikro-gizarteak) interpretazioaren bidez ulertu behar da.</p> <p>Gizartea aztertzen du, protagonisten ikuspuntutik, gizarteko ekintzen garapena eta ondorioak azaltzeko.</p> <p>Kontzeptuen bidez ikasi eta aztertzea nahiago zuen.</p>  |
| <b>Zeintzuk dira bere teoria eta kontzeptu nagusiak? (Kontzeptu</b> | <p><b><u>Materialismo historikoa:</u></b><br/>Gizartearen jatorria ekoizpenean oinarritzen da; asebetetzeko ekoizpen motak, behar materialak baldintzatzen ditu, egitura politiko, juridiko eta soziala.</p> <p><b><u>Gatazka teoría:</u></b><br/>Ekoizpen mota bakoitzari bi gizarte klase dagozkio, bata bestearen aurkako dira eta</p> | <p><b><u>Egite soziala:</u></b> Gizartea ulertzeko modu bezala ikusten du, gizabanakoaren kanpo dagoen errealitate sozial bat.</p> <p><b><u>Positibismoa:</u></b> Gizarte fenomenoaren arretketak kausalitate printzipioaren aplikazioan oinarritu behar dute eta ez aurretik ezarritako ideietan (metafisika).</p>  | <p><b><u>Soziologia adikorra eta positibismoaren aurkakoa:</u></b> Bere eginkizunik garrantzitsuenak, gizarte ekintzetan oinarritzen datza.</p> <p><b><u>Estratifikazioaren teoría:</u></b> Gizarte zatitzearen irizpideak identifikatzen ditu, munduko komunitate ezberdinetan. Hiru kontzeptu nagusitan banatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarte klasea: merkatuan dugun teoriaren arabera definitzen da.</li> </ul> |

|   |  |   |  |
|---|--|---|--|
| <p><b>bakoitza azaldu modu labor baten)</b></p> | <p>horrela izatearen arrazoia beraien arteko aurkakotasunean dago.</p> <p>Gainera gizarte marginiatu bat agertzen da, gainerakoak bezala deitzen zaie; kapitalismoan klase garrantzitsuenak proletarioak eta burgesak dira.</p> <p>Klaseen arteko borrokak aldaketa soziala dakar, eta klase sozial nagusiena historikoki botere handiena duena da, eta botere harreman horregatik askatu behar du.</p> <p>Klase nagusiak bere boterea instrumentu ideologikoen bidez legitimatzen du.</p> <p><b><u>Alineazioa:</u></b> Gizakiak bere baitako zerbait galtzean datza. Ondorioz bere buruarekiko ezezaguna bihurtuz.</p> <p>Alineazioaren oinarria lana da (kapitalismoaren ezaugarria) eta bertan, gizabanakoa basterendua geratzen da.</p> <p>Langileak gero eta lan gehiago egin, mundua gero eta arraroagoa bihurtzen du eta gero eta indar gutxiago izango du.</p> | <p><b><u>Gizarteko lan banaketaren teoría:</u></b></p> <p>Gizartearen ordenu soziala mantentzeko ardatza, horretarako balore moral kolektiboak erabiltzen dituelarik.</p> <p>Bereiztu egiten da zeregin eta ogibide desberdinetan, eta ezberdindu egiten ditu gizabanakoak gizarte konplexu askotan. Bere betebeharrak nagusiz datza dauka gizarte beharizanak asebetetzea, aldaketa osagarrien eta beharrezkoen bitartez, elkartasun organikoaren berezkoak direnak.</p> <p><b><u>Solidaritate motak:</u></b> Bi mota aurki ditzakeguz: Lehenik eta behin, organikoa dugu, lan banaketa konplexuan oinarritutako gizarte modernoari esker eratzen dena.</p> <p>Egunerokotasunean dauden beharrak asebetetzeko, elkarrekiko menpekotasuna sortzen du taldeko kideen artean; bakoitzak bere lana zehatza dauka eta besteen beharra du bizitza egonkor bat aurrera eramateko.</p> <p>Beste alde batetik, mekanikoa dugu, lan banaketa sozial sinpleetan oinarritutako gizarte tradizionalari esker eratzen da. Lan zatitze sinple hau, sexuaren, adinaren eta gizarte klasearen arabera eratzen da.</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Estatusa: gainerakoek gurekiko duten iritzi edo balorazioaren mende dago.</li> <li>- Partidua: Politikari buruz dugun ikuspuntuan datza.</li> </ul> <p><b><u>Gizarte ekintza:</u></b> Gizabanako baten jokaera, beste batenarengandik orientatua eta adierazia. Gizarte ekintza motak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekintza arrazionala xede konkretuetan dituenak helburuak (ekonomia, politika...).</li> <li>- Ekintza arrazionala balioei zuzenduak, ezaguna da bere balio etiko eta erlijiosoengatik (berdintasuna, elkartasuna...).</li> <li>- Sentimenduzko ekintzak, jendearen ekintzen eraginagatik edo momentuko sentimenduengatik.</li> <li>- Ekintza tradizionala: Ohituretan oinarrituriko ekintzak.</li> </ul> <p><b><u>Boterearen teoría:</u></b> Egiatzotasuna da teoria honen funtza. Menderatze erlazioa posible egiten duena da egiatzotasuna. Desberdindu egin behar da, menderatzea (indarra) eta autoritatea (gizarteak onartutako boterea da). Weberrentzan bigarren hau zen interesgarria, zelan den boterea gizartean onarturik dagoenean.</p> <p>Hiru motatako autoritate ezberdintzen ditugu,</p> |
|---|--|---|--|

|  |  |   |   |
|--|--|---|---|
|  |  | <p>Gizarteak eboluzionatu egiten du, solidaritate mekanikotik, organikora. Igarotzen horren bitartean sorrarazten da, anomia.</p> <p><b><u>Anomia:</u></b> Kontzientzia kolektiboaren ahultze prozesua da; arau faltak, zeinek, gizartearen orientazio diren.</p> <p>Anomia, gizarte tradizional batetik moderno baterako dagoen trantzioak, gizarte egituraren eragiten duen aldaketa handietatik du jatorria. Betiko balioek haien zentzua galtzen dute industrializazioarekin eta gizarte berriko balioak ez dira beti ongi etorriak izango.</p> | <p>haien lider eta egiazkotasunarekin:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Tradiziozkoa: mendekotasunen oinarria ohituretan dago (erregea).</li><li>- Karismatikoa: liderraren ezaugarrietan eta bere pertsonalitatean du oinarria.</li><li>- Legezkoa eta arrazionala: gizarte modernoetako egiazkotasuna da eta bi elementutan oinarritzen da: legeak eta burokrazian.</li></ul> <p><b><u>Burokrazia:</u></b> Legezko autoritate arrazionalaren eredu da. Funtzionatzeko organizazio modu bat da, non, arau inpersonal batzuen bitartez, gizabanako guztiek betebeharrekoak ordenu sozial bat lortzen da.</p> |
|--|--|---|---|

|  |  |   |  |
|--|--|---|--|
| <b>Aipatu bere obrarik ospetsuenak</b> | <u>1)</u> Agiri komunista<br><u>2)</u> Ekonomia Politikoaren kritikari ekarpenaren Prefazioan. | <u>3)</u> Gizarteko Lan Banaketa<br><u>4)</u> “El estudio del Suicidio” | <u>1)</u> Etika protestantea eta kapitalismoaren espiritua(1905)<br><u>2)</u> Ekonomia eta gizartea (1922)<br><u>3)</u> Parlamentua eta gobernua Alemania berrantolatu batean (1918) |
|--|--|---|--|

*Lide Aranzabe, Nadia Boujema, Nagore Davila, Leire Gezuraga, Itxaso Estanga eta Ainhoa Aralucea.*

*Imaila- Gizarte langintza eta Soziologia.*

*Loreto Saenz de Ugarte.*